

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako, Aragoiko, Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako ordezkariak mugaz gaindiko topaketa bat egin dute kirol-erakundeekin

NKGIko zuzendariak eta zuzendariordeak parte hartu dute Baionan egindako lansaio batean

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 23

Nafarroako Gobernuak, Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin duen mugaz gaindiko lankidetzahitzarmenaren baitan, kirol-proiektuen baterako garapena finantzatuko du (elkartrukeak, trebakuntzak, kirol-neurketak...).



Nafarroako, Aragoiko, Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako ordezkariak lansaioan.

NKGIko zuzendaria eta zuzendariordea, Rubén Goñi eta Primitivo Sánchez, hurrenez hurren, Baionan izan dira, Aragoiko, Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako homologoekin egin duten lansaioan.

Besteak beste, gai hauek jorratu dira: proiektu horietan parte har dezaketen erakundeak areagotzeko aukera, nola ekin proiektu horiek komunikatzeari, eta zer komunikazio-tresna dauden lurraldeetan kudeaketa errazteko.

Halaber, zenbait federaziok eta klubek lantzen ari diren mugaz gaindiko proiektuak aurkeztu dituzte.

Gogorarazi behar da akordio horren asmoa dela bultzada bat ematea modalitate bereko kirol-federazioen artean harreman eta lankidetzaprograma propioak ezartzeko, eskualde batzuetako eta besteetako klubaren artean elkartrukeak egitea sustatzeko (kirolarienak, entrenatzaileenak edo arduradunenak), eta baterako programa horiek egiteko Europako funtsak lortzea ahalbidetuko duen esparru bat sortzeko.

Akordioa hiru urterako sinatu da, eta, zehazki, ekintza-esparru zabal baten barruan baterako kirol-programak gauzatzera dago bideratuta.

Ekintza hauek aipatzen dira:

Lankidetzateknikoak edo txapelketa-lankidetzak bultzatzea: banakako kirolak, talde-kirolak edo naturako kirolak. Hala, eskualdez gaindiko ekitaldiak egin litezke, besteak beste: txirrindularitza-itzuliak, lasterketa-zirkuituak, atletismoko irekia...

Lankidetzta-programak eta/edo gazteen elkartrukeak babestea eta sustatzea, dela gazte talentudunenak, dela eskola-inguruneko kirol-atalen esparruan. Eskola-umeek, kirol-teknifikazioko zentroetako kirolariek eta kirol-entrenatzaileek har lezakete parte.

Osasun-kirolera, berrikuntza-kirolera, kirola eta enplegura, kirol-instalazioen kudeaketara eta abarretara bideratutako baterako proiektuak garatzea, Europak kirol-arloan eman dituen gomendioei jarraikiz, eta intereseko sektore horiei lotutako Europako sareetan sartzea eta haiek garatzeko Europako baliabideak eta laguntzak eskuratzea izanez jomugan.

Kirol-ekitaldiak, komunikazio-ekitaldiak edo kirol-instalazioen erabilera koordinatzea eta sustatzea.

Zenbait gairen inguruko baterako hausnarketa bultzatzea, hala nola kiroleko eta animazioko enplegua eta hirigintza aktiboa, kiroleko enpleguaren Frantziako ereduak balora dadin eta kirol-kudeaketaren esperientziak eta kirol-arloko politika publikoak alderatu daitezten.

Alde guztien interesekoak diren beste gai batzuk.

Esteka honetan kontsultatu daiteke kirol-arloko mugaz gaindiko lankidetzari buruzko informazioa:

<http://intercambios.fr/index.php/eu/baliabide-2>